XEDAPEN OROKORRAK

ARBITRAJE BATZORDEA

1601

2/2012 ERABAKIA, 2012ko martxoaren 1ekoa, Gazteriaren Euskal Legearen Proiektuaren gainean Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek planteatutako eskumen-arazoari buruzkoa.

Donostian, 2012ko martxoaren 1ean, Ebazpen Batzordearen Osoko Bilkurak, Juan Luis Ibarra Robles jaun lehendakariak eta Alberto López Basaguren, Eduardo Vírgala Foruria, Asunta de la Herrán Unceta-Barrenechea, Andrés María Urrutia Badiola eta Juan Ramón Guevara Saleta kideek osatzen dutenak, ondoko erabakia hartu du.

ERABAKIA

Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek, hurrenez hurren, 11/2011, 12/2011 eta 13/2011 eskumen-arazoak planteatu dituzte Eusko Jaurlaritzak aurkeztu eta Eusko Legebiltzarrak 2011ko urriaren 26an egindako saioan Osoko Bilkuraren Akordioaren bidez (Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 131. zenbakia, urriaren 28koa) tramitatzeko onartutako Gazteriaren Euskal Legearen Proiektuaren gainean.

Arabako Foru Aldundiak esandako proiektuaren 7. artikuluko e), f), g), h), i) eta j) atalen eta 8, 25, 26.1, 38, 39, 41 eta 49 artikuluen edukiaren gaineko eskumen-arazoei buruzko prozedura (11/2011) bultzatu du.

Bizkaiko Foru Aldundiak, bestalde, eskumen-arazoei buruzko prozedura (11/2011) Arabako Foru Aldundiarenaren artikulu eta atal berberen edukiaren gainean bultzatu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, berriz, 6. artikuluko 2. eta 3. atalen; 7. artikuluko a), d), e), f), g), h), i), j) eta k) atalen; 8, 23, 25, 26.1 eta 38 artikuluen; 41. artikuluko c), d), e), f), g), h), i) eta j) atalen; eta 49 artikuluaren gaineko eskumen-arazoei buruzko prozedura (13/2011) bultzatu du.

Juan Luis Ibarra Robles, Ebazpen Batzordearen lehendakaria, izan da txostengilea, eta Ebazpen Batzordearen Osoko Bilkuraren iritziaren berri eman du.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Ebazpen Batzorde honetan 2011ko azaroaren 15ean erregistratutako idazkiaren bidez, Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean, 131. zenbakian, urriaren 28koan, argitaratutako Gazteriaren Euskal Legearen Proiektuaren (GELP) gaineko eskumen-arazoari buruzko prozedura bultzatu du Arabako Foru Aldundiak (AFA).

Eragileak ezartzen du eskumenak urratzen dituela esandako proiektuaren 7. artikuluko e), f), g), h), i) eta j) atalen eta 8, 25, 26.1, 38, 39, 41 eta 49 artikuluen edukiak, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren (EHAE) 10.39 eta 37.3.a) artikuluei loturiko Lurralde Historikoen Legearen (LHL) 7.c.2 eta 8.3 artikuluek lurralde historikoei esleitzen dizkieten eskumenen titulartasuna aldatzen duen aldetik.

Ondorioztatzen du eztabaidagai diren manuen edukia ez datorrela bat EHAEn ezarritako eskumen-banaketarekin, hain zuzen, lurralde historikoetako foru-erakundeei bakarrik dagokielako

bere burua antolatzeko eskumena; eta, gainera, gazte-politikaren arloan indarrean dagoen eskumen-erregimenari, LHLren 7. artikuluko c.2 atalean ezarritakoari, eragiten diola.

Bigarrena.– Hurrengo egunean, azaroaren 16an, erregistratutako idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) eskumen-arazoei buruzko prozedura bultzatu du Ebazpen Batzordean, eztabaida sortu duten xedea eta funtsa aurrez AFAk adierazitako berberak izanik.

Hirugarrena.– Bestalde, 2011ko azaroaren 17an erregistratutako idazkian, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) GELPren gaineko eskumen-arazoei buruzko prozedura bultzatu du.

Eragileak ezartzen du eskumenak urratzen dituela GELPren 6. artikuluko 2. eta 3. atalen; 7. artikuluko a), d), e), f), g), h), i), j) eta k) atalen; 8, 23, 25, 26.1 eta 38 artikuluen; 41. artikuluko c), d), e), f), g), h), i) eta j) atalen; eta 49. artikuluaren edukiak, EHAEren 10.39 eta 37.3.a) artikuluei loturiko LHLren 7.c.2 eta 8.3.b) artikuluek lurralde historikoei esleitzen dizkieten eskumenen titulartasuna aldatzen duen aldetik. Eskatzen du adieraz dadila GELPko adierazitako manuak ez datozela bat EHAEn eta LHLn Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta foru-organoen artean ezarritako eskumen-banaketarekin.

Laugarrena.– Eusko Legebiltzarreko Mahaiak 2011ko azaroaren 22an egindako bileran erabaki zuen GELPren tramitazioa etetea (Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofiziala, 136. zenbakia, 2011ko azaroaren 25ekoa).

Bosgarrena.– Adierazitako eskumen-arazoak epe barruan sustatu zituzten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, eta Ebazpen Batzordeak, 2012ko urtarrilaren 9an egindako bileran, erabaki zuen tramitatzeko onartzea planteatutako eskumen-arazoak. Horretarako legitimaturik dauden erakundeei hamar egun naturaleko epea eman zitzaien eskumen-arazoak metatzeko aukera aztertzeko, eta hogei egun naturaleko epean eztabaidagai diren eskumen-arazoei buruz egoki ikusten zutena alegatu ahal izateko.

Seigarrena.– 2012ko otsailaren 6an Eusko Jaurlaritzak alegazio-idazkia aurkeztu zuen Ebazpen Batzordea arautzen duen 13/1994 Legearen (EBL), ekainaren 30ekoaren, 50.2 artikuluan ezarritako epean. Idazkian eskatzen da hartuko den erabakiak adieraz dezala GELP bat datorrela EHAEn Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta foru-erakundeen artean ezarritako eskumen-banaketarekin; eta ez duela aldaketarik eragiten eta ez duela eraginik eskumen-sisteman, ez EHAEn erkidego osorako erakundeen eta foru-erakundeen artean ezarritako eskumen-banaketan.

Zazpigarrena.– 2012ko martxoaren 1ean egindako osoko bilkuran, Ebazpen Batzordeak, ofizioz, eta aurrez prozeduran agertutakoei entzun ondoren, EBLren 31. artikuluan xedatutakoari jarraiki, erabaki du eskumen-arazoak metatzea batera ebatzi ahal izateko.

Zortzigarrena.– Prozedura honetan eztabaidan jarritako GELPko manuetan honako hau jartzen du hitzez hitz:

6. artikulua.– Eskumenen banaketa.

1.– (...)

2.– Lege honen ondorioetarako, honako hau da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zuzeneko ekintza: interes orokorra dela-eta edo baldintza ekonomiko, sozial edo tekniko bereziak direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan modu bateratuan eskaini behar diren gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduen gaineko egikaritze-eskumena, hurrengo artikuluan zehaztuko den moduan.

3.– Lege honetan jaso gabe dagoen eta zuzeneko ekintzari dagokion jarduerarik, zerbitzurik edo ekipamendu berririk azaleratuz gero, aurreko paragrafoan adierazi diren baldintzak betetzen direla arrazoitu egin beharko da eta hala adierazi Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez, Euskadiko Gazteriaren arloko Erakunde arteko Koordinazio Organoaren derrigorrezko txostena jaso ondoren.

4.– (...)».

«7. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eginkizunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gazteriaren arloan dituen eskumenak ondoko eginkizunetan zehazten dira:

a) Gazteriaren arloan, euskal herri-administrazioen jarduera zuzendu behar duten esku-hartze ildoen eta jarraibideen plangintza orokorra egitea eta arau eta jarraibideak lantzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, autonomia-erkidegoaren eremu osoan lehentasunak zehazteko eta lege honetan jasota dauden helburuak eta eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzean, maila homogeneoak bermatzeko xedearekin. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gazte-politikak eta lege honen eta legea garatuko duten gainerako arauen betetze-maila ebaluatzea dagokio.

b) (...)

c) (...)

d) Gazteriaren Euskal Sistemaren betebeharrak bultzatzeko aholkularitza.

e) Eusko Jaurlaritzari dagokion zuzeneko ekintzari lotutako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu hauek gauzatzea, 6. artikuluaren 2. atalean jasotakoaren arabera:

1) Emantzipazioa sustatzeko informazioa, orientazioa eta laguntza.

2. Nazioarteko izaerako jarduerak eta programak eta plazen trukean dautzan programak sustatzea; gazteen mugikortasuna, ostatua eta turismoa sustatzea hala Euskal Autonomia Erkidegoan nola Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo; bai eta gazteen arteko trukeak ere, bai Euskal Autonomia Erkidego barruan, bai beste autonomia-erkidegoekin, bai nazioarteko izaerakoak. Era berean, gai horiei buruzko informazioa, kontsulta eta aholkularitza gazteen eskura egoteko erraztasunak ere emango dira.

3. Gazte-prestakuntza ematea eta horri dagozkion diplomak ematea.

f) Euskadiko gazteen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak burutzea.

g) Gazteriaren arloko arretaren, berrikuntzaren eta ikerketaren kalitatearen hobekuntza bultzatzea, bai eta Gazteriaren Euskal Sistemaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza kudeatzea ere.

h) Ekimen soziala, elkarteak eta boluntario-lana bultzatzea, bai eta herritarren parte-hartzea ere, gazte-politikak kudeatu eta ebaluatzean. Horretan guztian, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua aldeztuko da.

i) Nazioarteko foroetan gazteen partaidetza sozial eta instituzionala bultzatzea, bai eta kulturen arteko elkarrizketa ere.

k) Lurraldez gaindiko elkarteekin eta ekimen sozialarekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko, beste autonomia erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko erakunde eta instituzioekin ere, harremanak eta lankidetzarako bidea ezartzea gazteriaren arloan.

«8. artikulua.– Foru-administrazioen eginkizunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zuzeneko ekintzak abiarazi baditzake ere, gazteriaren arloko arauak egikaritzeko lurralde historikoetako foru-organoek duten eskumena ondoko eginkizunetan zehaztuko da:

a) Dagokion lurraldean gazte-politikaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-plan orokorraren baitan eta Gazteriaren Euskal Sistemaren plangintza orokorrean ezarritakoari jarraiki.

b) Berariaz gazteei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak sortu, artatu eta kudeatzea, baldin lege honek eta lege hau garatuko duten gainerako arauek horien kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari edo udalei esleitzen ez badie.

c) Dagokion lurraldean gazteriaren arloko egiturak, programak eta prozedura egokitu eta sortzea eta nork bere instituzioan zeharkako gazte-politikaren sail arteko koordinazioa gauzatzea.

d) Dagokion lurralde-eremuko prestazio eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua ematea eta informazio hori Gazteriaren Euskal Sisteman sartutako datuen ezaugarrietara eta arauz zehaztuko den eguneratze-maiztasunera egokitzea.

e) Dagokion lurralde-eremuan lurraldeko ekimen sozialak eta erakunde eta instituzioek parte hartzeko bideak ezartzea, bai eta gazteen elkarteen partaidetza bultzatzea ere.

f) Lege honetan eta lege hau garatuko duten gainerako arauetan jasota dauden gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduak ikuskatzea eta kontrolatzea, beren eskumen-esparrukoak direnean.

g) Nork bere eskumen-esparruaren baitan, zehatzeko ahala gauzatzea, lege honetan eta legea garatuko duten gainerako arauetan jasotzen den moduan.

h) Lege honetan eta lege hau garatuko duten gainerako arauetan jasotako beste edozein eginkizun edo bere eskumen-esparruaren baitan esleitzen zaion beste edozein.»

«23. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Plan Orokorra.

Euskal herri-administrazioek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduketa gidatuko duten eskuhartze ildo eta gidalerroak koordinatuta eta globalki bilduko dituen plan orokorra onartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak. Gero, horren berri emango dio Eusko Legebiltzarrari».

«25. artikulua.– Gazte-politikaren plangintza eta ebaluazioa administrazio bakoitzean.

Aurreko artikuluan aipatutako plan orokorreko esku-hartze ildoak eta gidalerroak garatzeko, dagokion legealdirako gazteriaren arloko plangintza egokia bermatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak bere lurralde-eremuan. Azkenik, ebaluatu egingo du, arauz ezarriko diren irizpideei jarraiki».

«26. artikulua.– Urteko programazio eta ebaluazioa.

1.– Erkidego-, foru- eta toki-administrazioen –bakarrik nahiz mankomunitateetan elkartuta– sail bakoitzak bere jarduketa-programak landuko ditu urtero, eta aurreko artikuluetan jasotzen den

plangintza garatzeko neurriak egikaritzeko erabiliko dituen baliabide ekonomikoak zehaztuko ditu. Aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitu eta gero, sail bakoitzak ekintza edo neurri horiek ebaluatu egingo ditu, arauz ezarriko diren irizpideei jarraiki.

2.– (...)».

«38. artikulua.– Sail arteko koordinazioa foru- eta toki-administrazioetan.

Foru- eta toki-administrazio bakoitzak, bere burua antolatzeko dituen eskumenak egikaritzean, dagokion gazte-politika integralaren programazioa eta ebaluazioa gauzatzeko sail arteko koordinazioa bermatuko du bere administrazioaren baitan».

«41. artikulua.– Eginkizunak.

Gazteriaren Euskal Erakundearen eginkizunak honako hauek dira:

a) (...)

b) (...)

c) Gazteriaren Euskal Sistemaren betebeharrak bultzatzeko aholkularitza.

d) Zuzeneko ekintzari lotutako ondoko jarduera, zerbitzu eta ekipamendu hauek eskaintzea:

– Emantzipazioa sustatzeko informazioa, orientazioa eta laguntza.

– Nazioarteko izaerako jarduerak eta programak eta plazen trukean dautzan programak sustatzea, gazteen mugikortasuna, ostatua eta turismoa sustatzea hala Euskal Autonomia Erkidegoan nola Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, bai eta gazteen arteko trukeak ere, bai Euskal Autonomia Erkidego barruan, bai beste autonomia-erkidegoekin, bai nazioarteko izaerakoak. Era berean, gai horiei buruzko informazioa, kontsulta eta aholkularitza gazteen eskura egoteko erraztasunak ere emango dira.

– Gazte-prestakuntza ematea eta horri dagozkion diplomak ematea.

e) Euskadiko gazteen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak burutzea.

f) Gazteriaren arloko arretaren, berrikuntzaren eta ikerketaren kalitatearen hobekuntza sustatzea, bai eta Gazteriaren Euskal Sistemaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza kudeatzea ere.

g) Ekimen soziala, elkarteak eta boluntario-lana sustatzea, bai eta herritarren parte-hartzea ere, gazte-politikak kudeatu eta ebaluatzean. Horretan guztian, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua aldeztuko da.

h) Nazioarteko foroetan gazteen partaidetza sozial eta instituzionala sustatzea, bai eta kulturen arteko elkarrizketa ere.

i) Lurraldez gaindiko eremuan edo nazioartean berariaz Euskal Autonomia Erkidegoko gazteentzat diren jarduketak garatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuei diru-laguntzak ematea eta Euskadiko gazteei nazioarteko programetara joateko laguntzak ematea.

j) Lurraldez gaindiko elkarteekin eta ekimen sozialarekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste autonomia erkidegoetako, Estatuko eta nazioarteko erakunde eta instituzioekin ere, harremanak eta lankidetzarako bideak ezartzea gazteriaren arloan.

k) (...)

l) (...)

m) (...)».

«49. artikulua.– Goi-ikuskaritza.

1.– (...)

2.– Goi-ikuskaritzari, bere eginkizunetan diharduela, honako hauek dagozkio:

a) Gazteek eurei zuzendutako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak eskura izango dituztela eta balia ditzaketela bermatuko duten baldintzak betetzen direla zaintzea.

b) Gazteriaren Euskal Sistemak eskaintzen dituen zerbitzu eta prestazioen maila indarrean dagoen araudiari egokitzen zaiola egiaztatzea.

c) Konprobatzea Gazteriaren Euskal Sistemaren antolamendu orokorrean plangintzari, programazioari eta ebaluazioari buruz ezarritako baldintzak betetzen diren, bai eta berariaz gazteei zuzendutako jardueren, zerbitzuen, ekipamenduen eta gazteentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen eta pertsona fisikoen aintzatespenari buruzkoak ere.

3.– (...)

4.– (...)

5.– (...)

6.– (...)

7.– (...)».

Bederatzigarrena.– Ebazpen Batzordearen Osoko Bilkurak erabaki zuen 2012ko martxoaren 1ean eztabaidatzea eta onestea erabaki hau.

ZUZENBIDE OINARRIAK

Lehenengoa.-Ondorioztatutako eskumen-arazoen gaia.

1.– GFA eragileak GELPren 6. artikuluko 2. eta 3. atalen gaineko eskumen-arazoa planteatu du, EHAEren 10.39 eta 37 artikuluei loturiko LHLren 7.c.2 eta 8.3 artikuluak urratzen dituztelakoan.

2.– BFA, AFA eta GFA eragileek GELPren 7. artikuluko a) (GFA), d) (GFA), e), f), g), h), i) eta j) (BFA, AFA, GFA) eta k) (BFA) atalen gaineko eskumen-arazoa planteatu dute, EHAEren 10.39 eta 37 artikuluei loturiko LHLren 7.c.2 eta 8.3 artikuluak urratzen dituztelakoan.

3.– Eragile berberek, BFAk, AFAk eta GFAk, alegia, GELPren 8. artikuluaren gaineko eskumen-arazoa planteatu dute, LHLren 7.c.2 artikulua urratzen duelakoan.

4.– GFA eragileak GELPren 23. artikuluaren gaineko eskumen-arazoa planteatu du EHAEren 37.3.a) artikuluak bere burua antolatzeko bermatzen dion ahalmena urratzen duelakoan.

5.– BFA, AFA eta GFA eragileek GELPren 25, 26.1 eta 38 artikuluen gaineko eskumen-arazoa planteatu dute, LHLren 7.c.2 artikuluari loturiko EHAEren 37.3.a) artikuluak bere burua antolatzeko bermatzen dien ahalmena urratzen dutelakoan.

6.– GFA eta BFA eragileek GELPren 41. artikuluko c), d), e), f), g), h), i), eta j) atalen gaineko eskumen-arazoa planteatu dute, LHLren 7.c.2 artikuluari loturiko EHAEren 37.1 artikuluak bere burua antolatzeko bermatzen dien ahalmena urratzen dutelakoan. Eskumen-arazoaren xede den manuaren edukia honako hau da:

7.– BFA, AFA eta GFA eragileek GELPren 49.2 artikuluaren gaineko eskumen-arazoa planteatu dute LHLren 7.c.2 artikuluari loturiko EHAEren 37.1 artikuluak bere burua antolatzeko bermatzen dien ahalmena urratzen duelakoan.

Bigarrena.– Gazte-politikaren arloko eskumen-banaketa.

1.– EHAEren 10.39 artikuluan «gazte-politika» Autonomia Erkidegoaren eskumena dela jartzen du. Eskumen hori EKren 149.3 artikuluak bideratutako esparruan asumitzen da, hain zuzen, arloa ez dagoelako berariaz jasota EKren 148. artikuluan aipatutakoen artean; ez eta EKren 149. artikuluan Estatuari izendatutako eskumen esklusiboen artean ere.

2.– LHLren 7.c.2 artikuluan ezarritakoren arabera, lurralde historikoei dagokie erkidego osorako erakundeen «gazte-politika» arloko legeria bere lurraldean egikaritzea, «Euskal Herri Osoaren Erakundeek alor horietan artez ihardutzearen kaltetan gabe». Era berean, LHLren berariazko erabakietan, 11. artikuluan, Eusko Jaurlaritzari izendatzen zaio arlo honetan lurralde historikoei egikaritzea dagozkien jardueren goi-ikuskaritza, eta lege-erreserba ezartzen da hori arautzeko. Halaber, LHLren 8.3 artikuluan bata bestearen atzetik adierazten dira, arlo honetan eta egikaritze-eskumena gauzatzeko, lurralde historikoei dagozkien ahalak: erregelamenduak egiteko ahala, bere zerbitzuak antolatzeko; administrazio-ahala, ikuskaritza barne dela; eta administrazio-bidean berrikusteko ahala.

3.– Deskribatutako eskumen-erregimena kontuan hartuta, «gazte-politika» arloan Autonomia Erkidego osorako erakundeek berariaz dituzte asumituta legeak egiteko eta legeak erregelamendu bidez garatzeko eskumen osoa, zuzeneko ekintza eta, gainera, lurralde historikoetako foru-organoei dagozkien egikaritze-jardueren goi-ikuskaritza.

4.– Aurreko eskuduntzen kaltetan izan gabe, EHAEren 10.39 artikuluan asumitutako eskumenaren birbanaketa bertikalak berekin dakar Autonomia Erkidegoko erakundeek koordinazio-ahalmenak eta lankidetza sustatzeko ahalmenak gauzatzea, hain zuzen, «gazte-politika» arloko legeria autonomikoa egikaritzeak administrazioen artean sortzen dituen harremanak sistemaren batasunean malgutasunez integratuko direla bermatzeko.

Ahalmen hauek LHLren 2. artikuluak bideratzen ditu: 1) atalean ezartzen da Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko harremanak «elkarkidetasunezko elkarlaguntzazko sortarauetan oinarrituko dira». Eta 2) atalean agintzen da Euskal Herriko administrazio publikoek euren eskumenak, bakoitzak bereak, gauzatzean «eginkortasunezko eta elkarkidetasunezko sortarauen arauera jokatuko dute».

Manuan bereizi egiten da administrazioen arteko jarduketan elkarlanean aritzeko betebehar inplizitua (18/1982 KAE, 14OJ), Euskal Herriko administrazioen artean elkarrekin eta borondatez ezarritako teknika, tresna edo prozeduren bidez gauzatzen dena. Beste aldetik, manuak izendatutako koordinazio-printzipioak dimentsio bertikal saihestezina du; izan ere, elkarrekiko harremanetan, koordinazio-eginkizuna izendatzen den une beretik bereizi egiten dira administrazio koordinatzailea eta administrazio koordinatuak.

5.– Foru-administrazioen jarduketak koordinazio-printzipioari jarraitu behar dio «gazte-politika» arloko lege autonomikoak egikaritzeko euren eskumenak gauzatzean, baina printzipio horrek ez

du eraginik eskumenaren titulartasunean; eskumena gauzatzeko moduan du eragina, eta hau funtzio instrumental honen edukiak baldintzatuta geratzen da.

Koordinazio-eginkizuna erkidego osorako erakundeei arloko legeak egiteko dagokien eta lurralde historikoetako foru-organoek arloko legeak behar bezala egikaritzen dituztela zaintzeko ardura hartzera behartzen dituen eskumen osoan oinarritzen da; helmen orokorra duen koordinazio honen xedea, jurisprudentzia konstituzionalaren arabera, honako hau da: «alderdiak edo azpisistemak osotasunean edo sisteman integratzea, kontraesanak saihesteko eta disfuntzioak murrizteko, iraungo balute eragotzi edo zaildu egingo luketen aldetik, hurrenez hurren, sistemaren errealitatea bera» (32/1983 KAE, 2OJ); bai eta sistema ohartaraztea ere jarduketa betearazlean izan daitezkeen eta sistemaren batasunaren beraren berri ez duten konpartimentazioen gainean (104/1988 KAE, 2OJ).

Beste alde batetik, koordinazio-eginkizunaren edukia mugatua da bere helmenari dagokionez, koordinazio-ahalmena ez den aldetik gai kontrol zuzenerako edo hierarkikorako neurriak sartzeko; ez eta eskumena gauzatzean, egikaritze-autonomiaren bermeari eragiten diotelako, injerentzia okerra edo eskumen-interferentzia ez zilegia eragiten duten baldintzatzaileak eransteko ere (104/1988 KAE, 2OJ).

6.– Azkenik, komeni da zehaztea Autonomia Erkidegoak «gazte-politika» arloan legegintzarako duen eskumen osoak gastu publikoaren ahalmena erkidego osorako erakundeen eskuetan uzten duela eta ezin dela eskumen-titulu autonomo gisa hartu; ahalmen horrek, normalean sustapen-jardueretan adierazten denak, erakunde horientzat gordetako eskumena egikaritzeari atxikita behar du. Beste alde batetik, arloari loturiko eskumenak justifikatzen ditu sustapen-neurriak; eta, alderantziz, ez du gastu publikorako ahalmen orokorrak erakartzen eskumena (95/1986 KAE, 3OJ).

Hirugarrena.– GELPren 6. artikuluko 2. eta 3 atalei buruz sortutako eztabaida.

1.– GFAk GELPren 6. artikulua eztabaidatzen du, manuaren 2. atalean esleitzen den «zuzeneko ekintza» kontzeptuaren definizioari dagokionez. Eztabaidatu egiten du, era berean, 3. atalean ezartzen den bidea ere Autonomia Erkidegoak, arrazoituta eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu-bidez, «zuzeneko ekintza» deklaratu ahal izan ditzan GELPn jaso gabe dauden beste jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berri batzuk.

Bi eduki arau-emaileak gaitzesteko baliatzen duen oinarria artikuluan erabiltzen den «zuzeneko ekintza» nozioaren zehaztasunik eza da. Ulertzen du Gizarte Zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legearen (GZL), abenduaren 5ekoaren, 39. artikuluan erabilitako formula ez bezala, eztabaidagai den manuaren edukian oinarrituta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zuzeneko ekintzatzat hartu ahal izango litzatekeela gazteekin zerikusia duen ia edozein jarduera, zerbitzu edo ekipamendu.

2.– LHLren. 7.c.2 artikuluan lurralde historikoei izendatzen zaie erkidego osorako erakundeek «gazte-politika» arloan egindako legeak euren lurraldean egikaritzea, eta Autonomia Erkidego osorako erakundeentzat «gazte-politika» arloko «zuzeneko ekintza» gordetzen da.

LHLren 7. artikuluan eskumen-antolaketa horixe bera baliatzen da gizarte-laguntzarentzat (c.1 atala), erkidegoko garapenarentzat, emakume-arloarentzat, haurren aldeko politikarentzat, hirugarren adinaren aldeko politikarentzat eta aisiarentzat (c.2 atala). Zazpi arlo horietan lurralde historikoei izendatzen zaie erkidego osorako erakundeen legeak bere lurraldean egikaritzeko eskumena «Euskal Herri Osoaren Erakundeek alor horietan artez ihardutzearen kaltetan gabe».

3.– Eusko Jaurlaritzaren defentsak eta aurkaratzaileak adierazten duten moduan, LHLren 7. artikuluan erabilitako «zuzeneko ekintza» nozioa Eusko Legebiltzarrak definitu du Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen (GZL) 39.3 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen (EGBL) 4.2 artikuluan.

Bi kasuetan adierazten da «zuzeneko ekintza» programak, zerbitzuak edo eginkizunak eskaintzeko Autonomia Erkidegoak duen eskumen berezia dela, eta parametro bikoitzaren bidez eratzen da, objektiboa eta finalistikoa:

a) Parametro objektiboa, hain zuzen, Autonomia Erkidegoaren interes orokorrekotzat jotzen direlako jarduketa publikoari dagozkion eginkizun, programa, prestazio edo zerbitzu jakinak nahiz eta gai horietan egikaritze arrunta Autonomia Erkidegoko Administrazioari ez egokitu. Era berean, egikaritzean jarduketaren izaerari eta ezaugarriei, baldintza tekniko, ekonomiko edo sozial bereziei dagokienez efizientzia exijentziak kontuan hartzen direlako; bai eta eskala-ekonomiaren terminoetan lor daitezkeen onuren edo izan daitezkeen erabiltzaileen kopurua ere.

b) Parametro finalistikoa, han zuzen, eginkizun, programa, prestazio edo zerbitzu horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan modu bateratuan beteko direla bermatzeko asmoa dela-eta.

4.– GFAk ez du eztabaidatzen legelari autonomikoak erabilitako «zuzeneko ekintza» nozioaren zuzentasuna; alderantziz baizik. Bere kritikaren oinarria da eztabaidagai den manua aldendu egiten dela GZLren 39.3 artikuluan erabilitako definiziotik. Eta bere ustez, beraz, horrek eragina du «gazte-politika» arloko legeria egikaritzeko lurralde historikoen eskumen arruntaren titulartasunean.

5.– GELPren 6. artikuluko 2. atalaren edukiaren eta adierazitako arau-aurrekarien arteko erkaketak agerian jartzen du aztergai den lege-ekimenean erabiltzen den «zuzeneko ekintza» nozioaren egitura eta edukiak homogeneoak direla aurretik legelari autonomikoak sortutakoarekin.

6.– Horrela, GELPn Autonomia Erkidegoko Administrazioari izendatutako «zuzeneko ekintza» «...interes orokorra dela-eta edo baldintza ekonomiko, sozial edo tekniko bereziak direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan modu bateratuan eskaini behar diren gazteentzako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak ...» eskaintzeko gaitzen duen egikaritze-eskumena da. Lege-proiektuaren testuan aurrean adierazitako bi elementuak erabiltzen dira, objektiboa eta finalistikoa; eta ia hitzez hitz jasotzen da EGBLren 4.2 artikuluan erabilitakoa.

7.– GELPren 6. artikuluko 3. atalari dagokionez, GFAk gaitzesten du Eusko Jaurlaritza oso modu zabalean gaitzen dela «zuzeneko ekintza» esparrua legean jaso gabe dauden jarduera, zerbitzu edo ekipamenduetara hedatu ahal izateko. Horretarako, eragileak arrazoitzen du esleipen-formula horrek, GZLren 39. artikuluan erabilitako formulak ez bezala, aukera ematen duela Eusko Jaurlaritzak, alde bakarrez, «zuzeneko ekintza» adierazpenean gazteekin zerikusia duen edozein jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berri sartzeko foru-administrazioei izendatutako egikaritze-eskumen arruntaren kaltetan.

GFAk ez du eskatzen Eusko Jaurlaritzaren etorkizuneko jarduketa bati buruzko prebentziozko adierazpen bat; izan ere, ekintza hori eskumen-arazoen prozeduratik kanpo geratuko litzateke. Ulertu behar da, beraz, eragileak zeharkako «vindicatio potestatis» bat ondorioztatzen duela oinarri gisa hartuta, bere ustez, galera eragiten zaiola kalte egiten zaiolako foru-administrazioari legez esleitutako egikaritze-eskumenaren konfigurazioan, eta kalte egiten zaio, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzari ez zaiolako mugarik ezartzen GELPn jaso ez diren jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berriak alde bakarrez «zuzeneko ekintza» deklaratzeko.

8.– GFAren posizioa ezin da onartu premisatik bertatik abiatuta; izan ere, adierazgarria da GELPren 6 artikuluko 3. atalaren edukiaren eta GZLren 39. artikuluko 4. atalaren edukiaren arteko bat etortzea. Bi kasuetan gaitzen da Eusko Jaurlaritza, dekretu-bidez eta erakunde arteko koordinazio-organoaren derrigorrezko txostena jaso ondoren, arrazoituta deklaratu ahal izan dezan beste jarduketa batzuk «zuzeneko ekintzak» direla.

Eta, mugei dagokienez, ezarritako erabaki-prozedura arautua, egiaztatu egin behar den aldetik manuaren 2. atalean adierazitako baldintzak betetzen direla, berme bat da eskumena arbitrariotasunez baliatzearen aurrean. Era berean, erakunde arteko koordinazio-organoak esparrua zabaltzeko erabakia hartu aurretik egin behar duen txostena derrigorrezkoa izateak erraztu egiten du «zuzeneko ekintza» eskumena foru-aldundiak eskumenik gabe uzteko erabili ahal izatearen aurrean erreakzionatzea.

9.– Ondorioz, ez da hautematen GELPren 6. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritakoak eta atal horietan erabilitako «zuzeneko ekintza» nozioak aldatu egiten dutenik LHLren 7.c.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz lurralde historikoei dagozkien egikaritze-eskumenen titulartasuna.

Laugarrena.– GELPren I. Tituluan eta 41. artikuluan erabilitako «eginkizunak» terminoaren helmena erabakitzea, EBLren III. Ttituluko eskumen-arazoei buruzko prozeduran erabakitzekoak diren eztabaidagaiei loturik.

1.– GELPren I. Tituluan enuntziatutik bertatik bereizten dira euskal administrazioek gazte-politikaren arloan dituzten «eskumenak» eta «eginkizunak». Era berean, «eginkizunak» hitza GELPren IV. Tituluko 41. artikuluan ere erabiltzen da Gazteriaren Euskal Erakundeari izendatutakoak adierazteko.

2.– EBLren III. Tituluan jartzen duenez eskumen-arazoei buruzko prozedura lege-proiektu edo -proposamen batetik edo foru-arau batetik datozen «eskumen» autonomiko edo foralen titulartasuna zeini dagokion erabakitzeko baliatuko dela, zehaztu egin behar da GELPn erabilitako termino horiek duten helmena EBLko prozeduran aipatzen den «eskumen» nozioarekin kontrastatuta. Kontrastearen emaitzari esker ezarri ahal izango da sortutako arazoak erabaki daitezkeen ala ez eskumen-arazoei buruzko prozedura hau baliatuz.

3.– GELPren 6. artikuluan erabilitako «eskumen» nozioa bat dator EHAEren 10.39 artikuluan «gazte-politika» deitzen den arlo materialeko jarduketa publikorako gaitzearekin; eta, horrenbestez, EBLn, hitz bera erabiliz, jasotako nozioaren identitate juridiko bera du. Arlo material horretan, eskumenaren titulartasunak definitzen du interes publikoaren esparru juridikoa, eta interes publiko horri erantzuteko eskuduna lurralde-administrazio bakoitza da LHLren 6.1 eta 8.3 artikuluei loturiko 7.c.2 artikuluak ezarritako eskumen-banaketaren arabera.

4.– Beste aldetik, GELPren 7, 8 eta 9 artikuluetan erabilitako «eginkizunak» nozioaren bidez bakoitzak esleituta dituen eskumenak eraginkortasunez egikaritzeko –erabilgarriak izatearen zentzuan– funtzionalak direla esaten den jarduketa, jarduera edo zeregin mota zehatzak definitzen dira.

5.– Azkenik, GELPren 41. artikuluan «eginkizunak» hitza izaera administratiboa duen erakunde autonomiaduna dela eta berezko nortasun juridikoa eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa duela esaten den Gazteriaren Euskal Erakundeari izendatzen zaion eskumen-eremua identifikatzeko erabiltzen da. Ondorioz, GELPren 41. artikuluan erabilitako «eginkizunak» nozioak zentzu propioa du gazte-politikaren arloan Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere eskumenak garatzeko modua adierazten duen aldetik. Horretarako, pertsona juridiko publiko

berria sortzen da, Autonomia Erkidegoko lurralde-administrazioaren mende edo hari lotuta dauden administrazio instituzionalen berezko deszentralizazio-erregimen funtzionalaren arabera.

6.– Aurrean adierazitako bereizketa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke GELPren 7. artikuluan deskribatzen diren eta foru-aldundiek prozedura honetan planteatu dituzten eskumen-arazoetan eztabaidagai diren jarduketek, jarduerek edo eginkizunek aurresuposatzen duten eskumen-banaketa, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta foru-administrazioen artekoa, hasiera batean, ez dutela erabakitzen horiek eraginkortasunez egikaritzeko manuak izendatzen dituen eginkizun-motek.

7.– Manu hauen arkitektura osatzeko modua gaitzets daiteke legegintza-teknikaren parametroetatik. Baina ez dagokio Ebazpen Batzordeari hori baloratzea, ez eta proiektua idaztean kontuan hartu behar zen barne-koherentzia kontzeptualaren kontrola egitea ere. Aitzitik, Ebazpen Batzordeak hartu behar duen erabakiaren xedea lege-proiektua dela-eta eskumen autonomikoen edo foralen titulartasunari buruz egon daitezkeen eztabaidak ebaztea da.

8.– Adierazi behar da, bestalde, GELPren 7. eta 41. artikuluen arteko erkaketak agerian jartzen duela GELPren 41. artikuluan Gazteriaren Euskal Erakundeari izendatzen zaizkion eginkizun guztiak, eduki materialari dagokionez, bat datozela 7. artikuluko a), c), d), e), f), g), h), i), j), k) eta q) ataletan Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eginkizunak direla esaten direnekin.

9.– Bi manuen ekonomiak ahalbidetzen du ondorioztatzea GELPren 7. artikuluan erabiltzen den Autonomia Erkidegoko Administrazioaren nozioa, modu generikoan eta abstraktuan, foru-administrazioei eta toki-administrazioei loturiko eskumenaren titular gisa agertzen den erkidego osorako erakundeari dagokiola. Eta GELPren 41. artikuluan, aldiz, eskumena egikaritzeko deszentralizazio funtzionaleko antolaketa-aukera bat zehazten da, administrazio-erakunde autonomiaduna den Gazteriaren Euskal Erakundea, alegia. Eta horri jarraiki, GELPren 7. artikuluan jasotako eginkizunen edukitik abiatuta, Gazteriaren Euskal Erakundeak «gazte-politika» arloan garatuko duen eskumen-eremua mugatzen da.

10.– Ondorioz, GELPren 7. artikuluko eginkizunak Ebazpen Batzordeak erabaki behar duen eskumen autonomikoen edo foralen titulartasunari buruzko arazotzat bakar-bakarrik hartuko lirateke bere edukia ez datorrenean bat Autonomia Erkidegoko Administrazioa titular duen eskumena eraginkortasunez egikaritzera bideratutako betebehar edo zeregin instrumentalaren izaerari dagokionarekin. Eta ulertu behar da horixe gertatzen dela, GELPren 6.2 artikuluko aurreikuspenaren arabera, «gazte-politika» arloko Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeen «zuzeneko ekintza» zehazten den pasarteetan.

Bosgarrena.– GELPren 7. artikuluko a) atalari, 8. artikuluko a) atalari, 9. artikuluko a) atalari eta 23. artikuluari buruz sortutako eztabaida.

1.– GFAk eztabaidatu egin du GELPren 7. artikuluko a) atalean Autonomia Erkidegoko Administrazioari plangintza orokorra egiteko izendatzen zaion eginkizuna. Adierazten du EHAEren 10.39 artikulua garatuz legelariak diseinatutako eskumen-banaketan intzidentzia bat gertatzen dela, hain zuzen, 7.a artikuluan lehenengoari plangintzarako izendatzen zaion eta GELPren 23. artikuluan garatzen den eginkizunaren edukiaren eraginez. Horri lotuta, eztabaidatu egiten du, era berean, GELPren 8.a) eta 9.a) artikuluetan, hurrenez hurren, foru-administrazioei eta toki-administrazioei plangintza gauzatzeko izendatzen zaien eginkizuna ere.

2.– Lege-proiektuko 8.a) eta 9.a) artikuluei loturiko 7.a) artikulu honetan eskumen-intzidentzia dagoela adierazten du ulertzen duelako manu horietan hierarkia bat ezartzen dela erakunde autonomikoen eta foru-erakundeen artean gazte-politika, helmen normatiboa duena, planifikatzeko

eginkizuna gauzatzeari dagokionez. Plangintzarako adierazitako hierarkia honek, aurkaratzailearen ustez, hautsi egiten du EHAEren 37.4 artikuluan ezartzen den egikaritze-autonomiaren bermea; gogoratzen du gai horren berri eman zuela Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (EABJ) 192/2011 irizpenean, uztailaren 28koan.

3.– Plangintza-eginkizun publikoa bat dator beste eskubide-subjektu batzuekiko harremanak garatzeko administrazio publikoek baliatzen duten izaera dokumentaleko tresna juridiko bat sortzearekin. Era horretako tresna juridikoetan ohikoa da helburu orokorrak, gerora begirakoak, sarritan epe luzera begirakoak, modu formalizatuan ezartzea, bai eta plangintza egikaritzeko fase operatiboan horiek lortzeko metodo antolatua ezartzea ere.

4.– Hortik ondorioztatzen da plangintza interes publikoen kudeaketan laguntzeko eta orientatzeko eginkizuntzat hartu behar dela, administrazioen arteko harremanak edo administrazioen eta norbanakoen artekoak garatzea dakarten administrazio-eskumenak eraginkortasunez egikaritzera bideratuta.

5. Autonomia Erkidegoko Administrazioari gazteriaren arloan esleitutako eskumenak egikaritzeko izendatutako planifikazio-lanaren helmena behar bezala islatuta dago GELPren 7.a) eta 23. artikuluetan («...Gazteriaren arloan, euskal herri-administrazioen jarduera zuzendu behar duten esku-hartze ildoen eta jarraibideen plangintza orokorra egitea...»; «Euskal herri-administrazioek gazteriaren arloan garatu behar duten jarduketa gidatuko duten eskuhartze ildo eta gidalerroak koordinatuta eta globalki bilduko dituen plan orokorra onartuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak. Gero, horren berri emango dio Eusko Legebiltzarrari»).

6.– Arlo berean foru-administrazioei eta toki-administrazioei esleitutako eskumenak egikaritzeko planifikazio-lanaren helmena, berriz, GELPren. 8.a) eta 9.a) artikuluetan dago ezarrita («... Dagokion lurraldean gazte-politikaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-plan orokorraren baitan eta Gazteriaren Euskal Sistemaren plangintza orokorrean ezarritakoari jarraiki...»).

7.– Adierazitako plangintza-tresna juridikoen artean foru-autonomiaren bermeari eragiten dion hierarkia-harreman arauemailea izateari dagokionez, ez da halakorik ondorioztatzen lege-proiektuan Autonomia Erkidegoko Administrazioari erreserbatzen zaion eginkizunaren edukitik. Beste alde batetik, Gazteriaren Euskal Erakundeak egin behar duen eta Autonomia Erkidego osorako erakundeek onartu behar duten gazteriaren arloko Plan Orokorraren edukia ezin da arauketa normatiboen kategorian sartu.

8.– Beste alde batetik, Autonomia Erkidegoko Administrazioari izendatzen zaion eginkizuna plangintza-aldi bakoitzerako gazte-politikaren arloko interes publikoen definizioa zehazten duten eskuhartze-ildoak erabakitzea da; bai eta arlo horretako administrazio publikoen jarduera koordinatzeko jarraibideak ezartzea ere. Bi eduki horietako bakar bat ezin da identifikatu ez arauak egiteko ahala ez hierarkia organikoaren printzipioa ezarriz jarduera publikoa antolatzeko ahala egikaritzearekin.

9. Neurri horretan, ondorioztatu behar da ez dela hautematen GELPren 7.a), 8.a), 9.a) eta 23. artikuluek aldatu egiten dutenik LHLren 7.c.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz lurralde historikoei administrazioaren arloan dagozkien egikaritze-eskumenen titulartasuna.

Seigarrena.– GELPren 7. artikuluko d) atalari eta 41. artikuluko c) atalari buruz sortutako eztabaida.

1.– EHAEren 10.39 eta 37. artikuluak garatuz LHLren 7.c.2 eta 8.3 artikuluetan gazteriaren arloan ezarritako eskumen-banaketa aldatu egiten dela salatzean, GFAk eztabaidatu egiten du

Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta Gazteriaren Euskal Erakundeari Gazteriaren Euskal Sistemaren betebeharrak bultzatzeko izendatzen zaien aholkularitza-eginkizuna, GELPren 7.d) eta 41.c) artikuluetan aurreikusten dena.

2.– Aurkaratzeko baliatzen den arrazonamenduan bakar-bakarrik adierazten da esleitzen den eginkizunaren edukia lege-proiektuan «zuzeneko ekintza» gisa hartzen ez den eskumen-egikaritza tipiko bat dela eta, ondorioz, foru-administrazioetara eraman behar dela.

3.– Ezin da adierazi gabe utzi GELPren 12.2.d) artikuluan Gazteriaren Euskal Sistemaren jarduera-arloan dagoela jasota aholkularitza. Beste alde batetik, GELPren 7.d artikuluan adierazitako egitekoa termino berberetan jasota dago Gazteriaren Euskal Erakundearen eginkizunak jasotzen dituen 41. artikuluaren c) atalean.

4.– GELPren 7.d artikuluari dagokionez GFAk planteatzen duen arazoa ezin da sartu EBLren 44. artikuluaren arabera eskumen-arazoei buruzko prozeduran erabakitzekoak diren eztabaidagaien esparru mugatuan. Horren arrazoia da Gazteriaren Euskal Sistemaren laguntza-zerbitzuen jarduera-arloan kudeaketa publikoan laguntzeko aholkularitza (GELPen 12.2.d artikulua), administrazio publikoen jardueraren baitan, jarduera tekniko gisa sailkatu behar dela, egintza juridikoetan adierazten ez dena, administrazio-antolabideak garatzen duena eta zuzenean jarduera gauzatzen duten enplegatu publikoei egotzi ahal zaiena, egiteko horien zuzendaritza eta antolakuntza administrazioko organo eta agintarien ardura izendatzearen kaltetan izan gabe.

6.– Horregatik, ez da hautematen GELPren 7.d) artikuluak aldatu egiten dituenik LHLren 7.c.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz lurralde historikoei dagozkien administrazioaren arloko egikaritze-eskumenak.

Zazpigarrena.– GELPren 7. artikuluko e) atalari eta 41. artikuluko d) atalari buruz sortutako eztabaida.

1.– GELPren 7. artikuluan Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeei «gazte-politika» arloko eskumena egikaritzeko izendatutako eginkizunen artean, e) atalean hiru eratako egitekoak jasotzen dira, hurrenez hurren, «zerbitzuak eta ekipamenduak» gauzatzeko emantzipazioaren eta gazte-prestakuntzaren arloan; bai eta «jarduera» jakinak sustatzeko ere.

2.– Administrazio publikoek gauzatzen dituzten eta aurrean aipatu diren eginkizun-motak kontuan hartuta, zuzeneko ekintzaren eskumena egikaritzeko zerbitzuak (emantzipazioa sustatzeko informazioa, orientazioa eta laguntza; erkidego osorako erakundeek gauzatutako sustapen-neurrien informazioa, kontsulta eta aholkularitza) gauzatzea ez da jarduketa juridikotzat hartu behar, jarduketa teknikotzat baizik. Era berean, ekipamenduak gauzatzea jarduketa materiala da, ez juridikoa. Zuzeneko ekintzaren eskumena egikaritzeko zerbitzuak eta ekipamenduak gauzatzeak ez du, berez, inolako eraginik «gazte-politika» arloan banatutako administrazio-eskumenen titulartasunean. Ondorioz, prozedura honen eraginetarako, azterketa, xehatua izan dadin, gauzatu behar diren «jardueren» edukira mugatu behar da.

3.– GELPren 7.c) artikuluan gauzatzeko aipatzen diren «jarduerak» identifikatzeko, GELPren 12. artikuluak Gazteriaren Euskal Sistemari izendatzen dizkion jarduera-arloei sistematikoki loturik aztertu behar da bere edukia. Jarduera-arlo horietan adierazten da Gazteriaren Euskal Sistemak zuzenean eskainiko dituela emantzipaziorako informazioa, dokumentazioa, orientazioa eta laguntza (12.1.a artikulua); aisia hezitzailea eta hezkuntza ez formala (12.1.b artikulua); mugikortasun- eta ostatu-zerbitzuak (12.1.e); bai eta laguntza-zerbitzuak ere prestakuntzan (12.2.c artikulua). Era berean, GELPren 19. artikuluari, gazte-prestakuntzaren inguruko diplomak ematea arautzen duenari, sistematikoki loturik ere aztertu behar da; eta GELPren 41. artikuluari loturik ere

bai, d) atalean Gazteriaren Euskal Erakundeari izendatzen zaion aldetik jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskaintzeko eginkizuna GELPren 7.e) artikuluan, manuaren dikzioaren arabera, Eusko Jaurlaritzari zein gauzatzea dagozkion definitzeko erabilitako termino berberetan.

4.– Azkeneko lotura sistematiko honi dagokionez, berriz adierazi behar da ez dela Ebazpen Batzordearen eginkizuna aztertutako manuen testuan hautematen den barne-inkoherentziaren eragin jurdikoa baloratzea; izan ere, GELPn, alde batetik, «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Eginkizunak» titulua daraman 7. artikuluko e) atalean eginkizunak ez zaizkio izendatzen Administrazio autonomikoari, Eusko Jaurlaritzari baizik; eta, era berean, eginkizun horiek, deskribapen identikoa eginda, organismo autonomoa den Gazteriaren Euskal Erakundeari izendatzen zaizkio. Aurrekoari kalterik egin gabe, prozedura honen eraginetarako aztergai diren «jarduerak» Autonomia Erkidego osorako erakundeei esleitu izana da adierazgarria.

5.– Eztabaidagai ez den GELPren 19. artikuluari loturik, 7.e) eta 41.d) artikuluetan adierazitako «jarduerak», honako hauek dira: 2. atalean jasotzen dira nazioarteko izaerako plazak trukatzeko programak sustatzea; gazteen mugikortasuna, ostatua eta turismoa sustatzea EAEn eta EAEtik kanpora; eta gazteen arteko trukeak sustatzea EAEn, beste autonomia-erkidegoekin, bai nazioartean. Eta 3. atalean jasotzen diren jarduerak gazte-prestakuntzakoak eta horri dagozkion diplomak ematea dira.

6.– Doktrina konstituzionalaren arabera (95/1986 KAE, uztailaren 10ekoa, 5OJ; 13/1992 KAE, otsailaren 6koa, 8OJ; eta 178/2011 KAE, azaroaren 8koa, 4OJ), arloari buruzko eskumen-titulu espezifikoa dagoenean, eta «gazte-politika» arloko egikaritze-eskumenaren kasuan hala dago, sustapen-jarduera egin daiteke aurrekontuko kontu-sailen esleipen zentralizatuaren bidez kudeatuta honako egoera honetan: «... ezinbestekoa denean sektorearen oinarrizko antolamenduan neurriak erabat eraginkorrak izango direla ziurtatzeko eta lurralde nazional osoan izan ditzakeen hartzaileek eskuratzeko eta gozatzeko aukera berberak izango dituztela bermatzeko.... Kasu bakoitzean zentzuz justifikatuta agertuko da bere jatorria, edo inolako ahaleginik gabe ondorioztatu ahal izango da delako sustapen-neurriaren izaeratik eta edukitik».

7.– Adierazitako manuetako sustapen-jarduerak gauzatzeari dagokionez, aztertutako neurrien izaeratik eta edukitik erraz asko ondorioztatzen da jatorria, guztiak proiektatzen diren aldetik diru-laguntza izaerako programen gainean. Beste alde batetik, plaza- eta pertsona-trukearen helmenak, bai eta mugikortasunaren sustapenak ere, kasu guztietan gainditzen du lurralde historiko bakoitzaren esparrua eta, beste batzuetan, baita Autonomia Erkidegoarena ere.

8.– Gazte-prestakuntzako eta horri dagozkion diplomak emateko jardueren edukiari dagokionez, badirudi nahiko argi dagoela jarduera sektoriala dela (hezkuntza ez-formalaren esparruan, bere lanbidean gazteekin lan egiten duten pertsonen prestakuntza ez arautuari dagokio; bai eta prestakuntzaren akreditazioari ere dagozkion diplomak emanez), eta Eusko Jaurlaritzari zuzenean egikaritzea dagokiola. Eskumenaren titulartasunari buruzko eztabaida, beraz, lehen aipatutako hirugarren oinarri juridikoan, 4OJn jasotako irizpideen arabera ebatzi behar da.

9.– Irizpide objektiboa kontuan hartuta badirudi koherentea dela Autonomia Erkidegoaren interesekotzat jotzea, «gazte-politika» arloko legegintza-eskumenaren titularra den aldetik, interes hori gauzatzeko profesionalki horretan lan egiten duten pertsonen prestakuntza; beste alde batetik, arloko jarduketa publikoaren eraginkortasuna ziurtatzeko jarduera nuklear baten kudeaketa da. Eta, irizpide finalistikoaren arabera, gazteen prestakuntzaren arloan zuzeneko ekintzarako eskumenak ziurtatzen du eskumena homogeneotasunez eta modu bateratuan gauzatuko dela Autonomia Erkidegoaren esparruan. Are gehiago baldin eta, EABJren 192/2011 irizpeneko 64. atalean ezartzen den bezala, eskuduntzaren oinarrian badago «...aisialdiko eta gazteentzako

jardueretako zuzendari edo begiraleen prestakuntza, eta titulazioa autonomia-erkidegoek bakar-bakarrik onartzen dute Autonomia Erkidegoko gazteriaren arloko dagokion organoak ematen baditu (diplomak)... ».

10.– Zuzeneko ekintzarako eskumen-esparruan gazte-prestakuntza eta horri dagozkion diplomak ematea, bestalde, lurralde historiko bakoitzaren esparruan arloari buruzko legeria egikarituz foru-administrazioek gara ditzaketen prestakuntza-jarduerekin eta horri dagokion akreditazio formalarekin batera egin daiteke.

11.– Ondorioztatu behar da, beraz, GELPren 7. artikuluko e) atalean eta 41. artikuluko c) atalean adierazten diren jardueren edukia bat datorrela Autonomia Erkidego osorako erakundeei zuzeneko ekintzarako izendatutako eskumenaren titulartasunarekin.

Zortzigarrena.– GELPren 7. artikuluko f), g), h), i), j) eta k) atalen eta 41. artikuluko e), f), g), h), i) eta j) atalei buruz sortutako eztabaida.

1.– Aurkaratzaileek eztabaida sortu dute GELPren 7. artikuluko f) ataletik k) atalera eta 41. artikuluko e) ataletik j) atalera bitartean osorako erakundeei esleitutako eginkizunen inguruan. Oro har eta labur esanda, argudiatu dute aipatu atalek egikaritze-eskumen arruntari dagozkion jarduera publikoak aipatzen dituztela, eta osorako erakundeek horiek zuzenean egikaritzeak 7.c.2 artikuluak foru-administrazioei esleitutako eskumenen titulartasunaren eskumena murrizten duela, hain zuzen, LHLren 8.3 artikuluari eta EHAEren 10.39 eta 37. artikuluei dagokienean.

2.– Eztabaidaren xede diren atalen edukia aztertu ondoren, hiru eginkizun mota desberdin nabarmendu daitezke: euskal gazteriaren egoerari buruzko azterketak eta ikerketak burutzea (GELPren 7. artikuluko f) atala eta 41. artikuluko e) atala); Gazteriaren Euskal Sistemaren kalitatea eta etengabeko hobekuntzara bideratutako sustapena gauzatzea, gazte politikak kudeatu eta ebaluatzeko orduan parte hartzea, gazteriak nazioarteko foroetan parte hartzea, eta lurraldez gaindi eta nazioartean berariaz EAEko gazteentzako jarduera bereziak garatzeko diru-laguntzak (GELPren 7. artikuluko g) ataletik j) atalera eta 41. artikuluko f) ataletik i) atalera); eta azkenik, erakundeen arteko harremanak eta lankidetzarako bideak ezartzea Autonomia Erkidegoen artean eta nazioartean, osorako erakundeen esparruan.

3.– Aurrez azaldutako irizpideak aplikatuz, gazte politikaren xede diren biztanleei buruzko azterlanak eta ikerketak burutzea, 12.2.b) artikuluak Gazteriaren Euskal Sistemari laguntza emateko zerbitzuen artean sartzen duena, ez dagokio administrazio-eskumenari: eskumena zuzenean egikaritzeko izaera instrumentaleko jarduera tekniko hutsa da, Gazteriaren Euskal Sistemari dagokionean, eta Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere gain hartzen du eta Gazteriaren Euskal Institutuak ematen du. Horrenbestez, eztabaidaren xedea ezin da eskumen-arazoen prozeduraren barruan sartu, horien erabakia Ebazpen Batzordeari dagokio eta.

4.– Era berean, arestian adierazi bezala, gazte politikaren arloko legeria eskumenaren gainean Autonomia Erkidegoak duen titulartasunaren arabera, sustapen-jarduerak burutu ahal dira, jarduera horiek kasuan kasuko neurrien izaera eta edukiaren ondorioz ahaleginik gabe sortzen direnean, edo horiek burutzea zentzuz arrazoituta dagoenean, gaiari buruzko antolaketaren eraginkortasuna bermatzeko ezinbestekoak direlako, edo balizko hartzaileek EAEko lurralde-eremuan horiek eskuratu eta gozatzeko aukera berdinak bermatze aldera.

5.– Neurri horien berezko izaera eta edukiaren ondorioz garatzen dute EAEko osorako erakundeek Gazteriaren Euskal Sistema etengabe hobetzera bideratutako jarduera, eta gazte politikak kudeatu eta ebaluatzeko orduan parte-hartzea eta nazioarteko foroetan parte-hartzea sustatzen dute.

6.– Era berean, gazte politikaren arloan foru-administrazioei dagokien egikaritze-eskumenari eragiten ez dion sustapen eginkizunari jarraikiz, egokitzat jo behar da EAEko osorako erakundeek zuzenean garatutako diru-laguntzen jarduera, EAEko gazteei berariaz zuzendutako jarduerak lantzen dituztenentzat, beti ere euren jarduera-eremua Autonomia Erkidegoa, nazioa eta nazioartekoari dagokiona baino handiagoa denean; horrekin batera, EAEko gazteei laguntzak ematea ere, nazioarteko programetan parte hartzea errazte aldera. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, nazio edo nazioarte mailako garrantzia dutela, burutzen diren berariazko jarduera eta programetan parte hartu eta horiez gozatzeko EAEko gazteen artean aukera berdintasuna bermatzeko ezinbestezko neurriak direla kontuan hartuta.

7.– Azkenik, gazteen arloan Autonomia Erkidegoko, erkidego arteko eta nazioarteko elkarte, erakunde eta instituzioekin erakunde arteko lankidetza eta kooperaziorako harremanak eta bideak finkatzeko jarduerak ez du inolako eraginik Autonomia Erkidegoko osorako erakundeei eta foru-administrazioei dagozkien egikaritze-eskumenen titulartasunean. Erakunde arteko harremanak lantzea pertsona juridiko publiko guztiei datxekie, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 3.2 artikuluaren eta LHLren 2.2 artikuluaren aginduz, harremanetan kooperazio eta lankidetza printzipioek agintzen dute. Gauzak horrela, aintzat hartutako atalek (GELPren 7.k eta 41.j artikuluak) jarduera hori Lurralde Historikoen eskumenari dagokion lurralde-eremua gainditzen duten erakunde eta elkarteetara bideratzen dute.

8.– Ondorioz, GELPren 7. artikuluko f), g), h), i), j) eta k) atalek zein 41. artikuluko e), f), g), h), i) eta j) atalek aipatutako jarduera Autonomia Erkidegoko Osorako Erakundeei esleitutako zuzeneko ekintza eskumenaren titulartasunari dagokio.

Bederatzigarrena.– GELPren 8. artikuluari buruz sortutako eztabaida.

1.– Foru-erakunde aurkaratzaileek eztabaida sortu dute GELPren 8. artikuluan foru-administrazioen alde funtzioak esleitzeari dagokionean; hain zuzen ere, artikulu horren edukiak gazte politikaren arloan arauak betearazteko eskumenaren titulartasuna urratzen duela uste dute, LHLren 7.2.c artikuluak lurralde historikoen alde aitortutakoa.

2.– Aurkaratzailearen jarreraren oinarri gisa labur baieztatu da 8. artikuluak foru-administrazioei esleitutako eginkizunek 9. artikuluak toki-erakundeei esleitutako eginkizunak definitzeko erabilitako idazteko modu berdin-berdina dutela, eta halaber, esleitutako eginkizunen edukia ez dagoela zehaztuta.

3.– GELPren 8. eta 9. artikuluetan ere idazteko modu bera erabiltzen da, hurrenez hurren, lurralde-eremuari egokituta, Lurralde Historikoen foru-eskumena zehazten duten eginkizunen edukia ezartzeko orduan, horien lurraldearen barruan, gazte politika arloan Autonomia Erkidegoko legeria betearazteko, eta baita udalen eskumeneko eginkizunak betetzeko orduan ere, udalei Konstituzioaren bidez bermatutako toki-autonomiaren eraginkortasuna bermatzen zaizkienak.

4.– Idazkera bera izateak ez du berez Lurralde Historikoei dagokien araudia betearazteko eskumenaren titulartasuna aldatzea ekartzen. Nabarmendu beharra dago udalei gazte politika arloan eskumenak esleitzeak eta horiek eginkizunetan zehazteak Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen 17/1985 Legearen 2.1 artikuluak xedatutako agindua betetzearekin bat datorrela. Horren arabera, sektoreko legeriak ziurtatu behar die udalerriei euren interesei zuzenean eragiten dieten afera orotan esku hartzeko duten eskubidea gauzatuko duten eskumenak esleitzen zaizkiela, herritarren administrazio kudeaketaren deszentralizazio eta ahalik eta hurbiltasun handienaren printzipioei jarraikiz.

5.– GELPren 8. artikuluak foru-administrazioei esleitutako eginkizunak zehaztugabeak daudela baieztatzeak ez du argudio sendoen sostengurik. Eginkizunak zehazteko orduan zehaztasunik eza dagoela dioen ondoriorik ez da sortu manua aztertuta.

6.– Horrenbestez, ondorioztatu behar da GELPren 8. artikuluak foru-administrazioei esleitutako eginkizunen zehaztapenak ez duela Lurralde Historikoen Legearen 7.2.c artikuluak lurralde historikoei araudia betearazteko emandako eskumenaren titulartasuna zalantzan jartzen.

Hamargarrena.– GELPren 23, 25, 26.1 eta 38. artikuluei buruz sortutako eztabaida.

1.– Era berean, aurkaratzaileek eztabaida sortu dute GELPren 23. artikuluak Plan Orokorrari Euskal Autonomia Erkidegoko gazteria arloan agintzen dionaren inguruan («...plan orokorrak, modu koordinatuan eta globalean, gazteria arloan euskal administrazio publikoen jarduera bideratuko duten esku-hartzeko ildoak eta jarraibideak jasoko ditu...»). Eta eduki horri lotuta, GELPren 25, 26.1 eta 38. artikuluetako aginduak eztabaidatu dira, foru-administrazioek plangintza orokorraren esku-hartzeko ildoak eta jarraibideak nahitaez garatzea jasotzen dutela kontuan hartuta, kasuan kasuko lurralde-eremuan plangintzak egiteko tresnak aplikatuz, eta halaber, urteroko jarduera-programak landuz. Horiek departamentuen arteko koordinazioa zein emaitzen ebaluazioa bermatu beharko dituzte lantzeko orduan.

2.– Foru Aldundien defentsek adierazitakoaren arabera, zalantzan jarritako manuek EHAEren 37.3.a) artikuluak Lurralde Historikoetako foru-organoei aitortutako bere burua antolatzeko eskumenaren urraketa adierazten dute.

3.– Aurkeztutako arazoari buruzko erabakia aurreko bigarren, hirugarren eta bosgarren oinarri juridikoetan ezarritako irizpideek zehazten dute. Beste eskubide-subjektu batzuekiko harremana garatzeko orduan administrazio publikoek darabilten plangintza, eskumen arloari dagokionez, sektore-eremu berean, aldi berean, jarduera publikoak kudeatzeko ahalmena duten administrazio publikoen jarduera koordinatzeko tresna nagusia da.

4.– Aurkaratzaileek ez dute ukatzen Autonomia Erkidegoaren eskumena dela araudia egikaritzeko eskumenaren titular diren hiru foru-administrazioen jarduera bideratzeko esku-hartzeko ildoak eta jarraibideak zehaztea. Baina ez dute uste legeria autonomikoaren eskumenak Autonomia Erkidegoari foru-administrazioei urteroko jarduera-programen gaineko plangintza egoki baterako tresnak lantzeko zein garatzeko betebeharra inposatzeko ahalmena ematen dionik, ezta erregelamendu bidez xedatutako irizpideen arabera ebaluatzeko betebeharra ere. Hori horrela dela uste du, planak eta programak finkatzeko eskumena EHAEren 37.3.a) artikuluak Lurralde Historikoetako erakundeei esklusiboki esleitzen dien bere burua antolatzeko eskumenaren barruan dagoelako.

5.– Ezin da bat etorri Foru Aldundien jarrerarekin. Gazte politikaren arloan erabateko eskumen legegilea duen Autonomia Erkidegoak plangintzaren esku-hartzeko ildoak eta jarraibideak administrazio arteko koordinazioaren zerbitzura ezartzeak, araudia betearazteko eskumenak betetzeko orduan orientazio moduan foru-administrazioen jarduera baldintzatzera bideratutakoak, ez du EHAEren 37.3.a) artikuluak Lurralde Historikoei aitortutako eskumen-tituluak egikaritzeko orduan ematen dien bere burua antolatzeko autonomiaren bermean inolako esku-sartzerik adierazten. Kontuan hartuta Plan Orokorrak foru-administrazio bakoitzari onestea dagokion plangintza eta programazioarekin bat egiten duela, eta Plan Orokorrari dagozkion jarraibideak eta orientazioak jarduera garatzeko direla, eta horrenbestez, ez dute gazte politikaren arloko jarduera garatzeko foru-administrazio bakoitzak baliatuko duen antolaketa ezartzen eta taxutzen.

6.– Zehazkiago, GELPren 25 eta 26.1 artikuluetako preskripzioek (horien arabera administrazio publiko bakoitzak bere lurralde-eremuan gazteria arloko plangintza egoki bat bermatuko du, legegintzaldi bakoitzari dagokion eperako eta plangintzan jasotakoa garatzeko jarduera-programak landuko dituzte urtero administrazio horietako departamentuek), 23. artikuluari dagokionez, lege-baldintza bat ezartzen dute eskumen arloan araudia betearazteko ahalmena duten administrazio guztientzat. Hala ere, administrazio publiko anitzen jarduera bideratzeko xede duen baldintza honek ez du administrazio bakoitzak antolatzeko duen autonomian inolako esku-sartzerik adierazten, eta hori guztia, kontuan hartuta bere jarduera anitza Gazteriaren Euskal Sistemaren unitatera birbideratzea ez dela administrazio-antolaketa taxutzeari dagozkion erabakien inposizio hierarkikoaren bidez lortzen, baizik eta administrazio arteko koordinazioari dagozkion tresnak erabiliz.

7.– Azkenik, ezin da bat etorri ere GELPren 38. artikuluari buruz sortutako eskumen-arazoaren inguruan aurkaratzaileek azaldutako argudioarekin. Manuak dio foru- eta toki-administrazio bakoitzak departamentu arteko koordinazioa bermatu beharko duela bere burua antolatzeko ahalmenari jarraikiz, gazteria politika integral baten programazioa landu eta ebaluatzeko. Manuak ez du inolako eskumen-aldaketarik ez esku-sartzerik adierazten foru-erakundeei dagokien bere burua antolatzeko ahalmena baliatzeari dagokionez. Beste alde batetik, euren eskumenak egikaritzeko orduan bat egiten duten administrazio publikoen betebeharra gazte politika arloaren esku uztera mugatzen da erregulazioa, barne-koordinazioaren eraginkortasun printzipioari jarraituz, zeina estatuko oinarrizko legeriaren baitan Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 3.1 artikuluak xedatzen duen eta erkidegoaren baitan LHLren 2. artikuluak xedatzen duen.

8.– Horren arabera, ondorioztatu da GELPren 23, 25, 26.1 eta 38. artikuluetako preskripzioek ez dutela esku-sartzea adierazten EHAEren 37.3.a) artikuluaren arabera Lurralde Historikoei emandako bere burua antolatzeko eskumena betetzeko orduan.

Hamaikagarrena.– GELPren 49. artikuluari buruz sortutako eztabaida.

1.– Halaber, Foru Aldundiek GELPren 49. artikuluari buruzko eztabaida sortu dute. Manuak zazpi atal ditu. 1. atalean, Autonomia Erkidegoko Administrazioari gazteentzako berariazko jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen arloan goi-ikuskaritza eskumena ematen zaio, gazteek herritar gisa dituzten eskubideak eta lege honetan jasotako printzipio nagusiak modu eraginkorrean betetzen direla bermatzeko; halaber, aplikatzekoa den legeria bete eta ikuskatzeko eskumena ematen dio. 7. atalean goi-ikuskaritza Gazteriaren Euskal Institutuari esleitzen zaio. 2. atalak goi-ikuskaritzari dagozkion hiru eginkizunak zehazten ditu: a) Gazteentzako berariazko jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak eskuratu eta erabiltzea bermatuko duten baldintzak betetzen direla zaintzea. b) Gazteriaren Euskal Sistemak eskainitako zerbitzuen eta prestazioen mailak indarrean den araudiak xedatutakoari jarraitzen diotela egiaztatzea. c) Gazteriaren Euskal Sistemaren antolamendu orokorrak zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, plangintzari, programazioari eta ebaluazioari lotuta eta gazteentzako berariazko jarduera, zerbitzu eta ekipamenduei eta gazteen arloan zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko eta erakundeei lotuta. Eztabaidaren benetako xedea manuaren 2. atalera mugatzen da.

2.– BFAren eta AFAren defentsek, hertsiki, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak uztailaren 28an emandako 192/2011 irizpenaren 144, 145, 146 eta 147. ataletara mugatzen dute aurkaratzeko arrazoiketa. Horrela, beste inolako iritzirik erantsi gabe, GELPren 49. artikulua EHAEak zehaztutako eskumen-banaketari egokitzen zaiola ondorioztatu dute, Lurralde Historikoetako Foru-erakundeek dutelako esklusiboki bere burua antolatzeko eskumena, eta LHLren 7.c.2 artikuluak gazte politikaren arloan xedatutako eskumen-araubideari eragiten diolako.

GFAren defentsak 192/2011 irizpenaren atal berdinen aipamena berretsi du, eta ondorio bikoitza atera du: alde batetik, GELPren 49.2 artikuluaren arabera goi-ikuskaritzari esleitutako eginkizunak Gizarte-zerbitzuei buruzko Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legearen 83.1 artikuluak Eusko Jaurlaritzako Goi-Ikuskaritzari arlo horretan esleitutakoen errepikapena dira, Lege horrek Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzea eskubide subjektibotzat jotzen duela kontuan hartu gabe; eta bestetik, GELPren 49.2 artikuluaren a), b) eta c) atalen edukia bat datorrela ikuskatze-jarduera arruntari dagozkion eginkizunak finkatzen dituzten 50.1 artikuluaren a), f) eta g) azpiatalekin. Bere iritziz, administrazioaren ahalmenean, ikuskaritza barne, sartzea esan nahi du horrek, eta LHLren 8.3.b) artikuluak lurralde historikoen alde onartzen du Osorako Erakundeen legeria euren lurraldearen barruan dagozkien arloetan egikaritzeko eskumena.

3.– Ez dago eztabaidarik LHLren 11. artikuluak Eusko Jaurlaritzak gazte politikaren arloan lurralde historikoei dagozkien egikaritze-jardueren goi-ikuskaritza arautzeko emandako ahalmenari buruz (Eusko Legebiltzarraren lege erreserbarekin).

4.– Era berean, Foru Aldundien defentsek zein Eusko Jaurlaritzaren defentsak bat egiten dute Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 39/2003 eta 134/2010 irizpenek, Konstituzioaren jurisprudentziari jarraikiz (6/1982, 32/1983, 42/1983 eta 76/1983 KAEak), jasotako irizpideekin, goi-ikuskaritza zaintzarako eskumen gisa taxutzeari dagokionez. Ez litzateke kontrol orokor eta zehaztugabeko jarduera baten antzekoa izango, araudiaren edukiak betetzeko erabat juridikoa den egiaztatzeko edo kontrolatzeko tresna baizik.

Goi-ikuskaritza jardueraren xedea ezin da hari lotutako administrazio publikoen ekintzen gainekoa izan, jardueren gainekoa baizik, horiek modu globalean hartuta. Bestalde, goi-ikuskaritzaren jardueraren zeregina aztertu eta egiaztatutako irregulartasuna eskumena duen gobernu-organoari jakinaraztera mugatu behar da, gobernu-organoak, dagozkion eskumenen bidez, antzemandako ez-betetzea konpondu dezan.

5.– Ez BFAk zein AFAk ondorioztatutako idatziek ez Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 192/2011 irizpenaren atalen edukiek ere (aldundiek horietara jotzen dute «in alliunde») ez diote inolako oinarririk ekartzen aurkaratzaileek, oinarririk gabe, EHAEren 37.3.a) artikuluari eta LHLren 7.c.2 artikuluari lotuta berretsitako eskumen-eztabaidari. EBLren 26.1 artikuluak xedatutakoaren arabera, ustez badagoen eskumen-urraketa zehaztasunez eta argi arrazoituta ez dagoenez eta abiarazleek urraketa horren inguruan alegaziorik aurkeztu ez dutenez, ezinezkoa da aintzat hartutako gaiari lotuta eztabaidari bide ematea.

6.– Aitzitik, ez dago inolako eragozpenik administrazio-jarduera ikuskatzailea garatzeko eskumenaren urraketaren gainean erabakitzeko; eskumen hori foru-administrazioei aitortzen die LHLren 8.3.b) artikuluak, eta abiarazlearen aburuz, GELPren 49.2 artikuluaren ondorioz gertatzen da urraketa, goi-ikuskaritzari 50.1 artikuluko a), f) eta g) azpiatalek ikuskatze-jarduera arruntari dagozkion eginkizun berdinak esleitzen dizkiolako.

7.– Ezin da salatutako urraketa aintzat hartu. Bi manuen arteko kontrastea egin besterik ez dago GELPren 49. artikuluko a) atalean (aurreko 1. epigrafean jasotakoa) goi-ikuskaritzari esleitutako eginkizunen eta GELPren 50.1 artikuluko a) azpiatalaren edukiak («Lege hau eta berau garatzen duten arauak betetzen direla zaindu eta egiaztatzea») berdinak ez direla ondorioztatzeko. Ezta GELPren 49.2 artikuluko b) atalaren eta GELPren 50.1 artikuluko f) azpiatalaren («Gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamenduen erabiltzaileen eskubideak errespetatzen direla zaintzea») artean ere; eta ezta ere GELPren 49.2 artikuluko c) atalaren eta GELPren 50.1 artikuluko g) azpiatalaren («Jarduera, zerbitzua edo ekipamendua ikuskatze-arauei egokitzen zaiela egiaztatzea») artean.

Horrela, goi-ikuskaritzari esleitutako eginkizunak ezin dira kontrol jarduera orokorrarekin parekatu, jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak eskuratu eta erabiltzeko baldintzak ezartzen dituen araudia betetzeari zein Gazteriaren Euskal Sistemak eskainitako zerbitzu eta prestazio mailen araudiarekiko egokitzapena egiaztatzeari buruzko zaintza-eginkizunak betetzeari baizik, eta baita plangintza, programazio eta ebaluazioari buruzko araudia betetzeari dagokionez ere, eta halaber, jarduera, zerbitzu eta ekipamenduak ikuskatzeari buruz ere.

8.– Ez da hauteman GELPren 49. artikuluko zalantzan jarritako manuek LHLren 8.3.b) artikuluak foru-administrazioei aitortutako ikuskatze-eskumena betetzeko orduan esku-sartzea adierazten dutenik.

ERABAKIA

Azaldutakoari jarraikiz, Ebazpen Batzordeko Osoko Bilkurak

ERABAKI DU:

Gazteriaren Euskal Legearen Proiektuaren 6. artikuluko 2 eta 3 atalen; 7. artikuluko a), d), e), f), g), h), i), j) eta k) atalen; 8, 9, 23, 25, 26.1, 38 eta 41. artikuluen; 41. artikuluko c), d), e), f), g), h), i) eta j) atalen; eta 49. artikuluaren gaineko eskumen-arazoak Autonomia Estatutuak Osorako Erakundeen eta Foru Erakundeen artean xedatutako eskumen-banaketari egokitzen zaizkiola, eta eskumen-banaketaren titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Osorako Erakundeei dagokiela.

Erabaki hau aldeei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Historikoetako Aldizkari Ofizialetan argitaratuko da. Horrela adostu dute eta sinatu dute Batzordeko kideek, eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut.

Bilbao, 2012ko martxoaren 13a

Arbitraje Batzordearen idazkaria,
BEGOÑA BASARRATE AGUIRRE.